

PALABRA DE CONEJO

Raul Dominguez

16.12.2016-14.02.2017

CarrerasMugica

CarrerasMugicak atsegin handiz aurkezten du Untxiaren hitza erakusketa. Abenduaren 16tik aurrera egongo da ikusgai, eta Raúl Domínguezek gure galerian egingo duen lehen erakusketa da, Atarian 2014an egin zuen interbentzioaz geroztik; 2015 eta 2016 bitartean egindako marrazki sorta batek osatua da.

Askotariko baliabide teknikoak eta hainbat erregistro grafiko erabiliz egindako lanak dira, eta paisaiaren arrasto eta formen eta marraztearen beraren arrasto eta formen arteko erlazioa eratzen dute.

Marrazkiaren emaitza den bezala saiakeren metaketa ikusgarri bat, marrazki bakoitza halaber har liteke bestelako baldintza material eta tekniko batzuetan irudi bat lortzeko egindako saiakeratzat, irudi bat fintzeko saiakera, hura ihesean jarritz.

Marrazkiak horman jarritz, interbentzio bakar gisa, konfiantza osoa dut beren kasa antolatuko direla, eta elkarren arteko loturak eratuko dituztela, eragin berezia sortuz erakustokian. Baten eta bestearen artean agertzen dira irudiak, marrazkira iritsi diren modu berean, itzulginguruka eta modu etenean.

Aurkikuntza handia da gaiaren eta teknikaren arteko topaketa sorkuntza prozesuan, hor egiten baita aurrera marrazkiak xuxurlatzen duenari jarraituz. Prozesu horretan sortutako irudiaren bitxikeriak marrazkiak bere buruari egin diezaioten utzi duen hori erakusten duen gainezkatze bat dira. Tentsioa dago materialaren –hurbiltasunean– eta bistaratzen edo agerrarazten duen irudiaren –distantzian–artean.

Marrazkiek, oro har, toki zehatz bat eratzen dute, eta etorkizun direnentzako beharrezko espazioa uzten dute.

Nahiago dut periferia; paseoetan, lan egiteko moduan eta begiratzeko moduan. Gai handiak zuzenean lantzeari itzuri egitea, gai horiek kontakizunaren erdigunean ez kokatzea, zeharka ager daitezen, baldin eta agerian gelditu nahi badute. Gaiak han eta hemen pausatzen den tximeleta baten antzera lantzea. Arreta ematea tokiei loturiko bizialdiari, hori baita, halaber, marrazkiari loturiko bizialdia. Marrazkia bere baitan zerbait gertatu denean hasten da niretzat esanahia hartzen, eta aldeztu aurretik asmatu ezinezko bilakaera du marrazki bakoitzak. Ez dut egiten gauaren marrazki bat, adibidez; gaua egiten da marrazkian. Bizkor, batzuetan, mantsoago, besteetan. Eta baliteke argi kontra ikusitako ahate baten irudiak gauari gonbita egitea irudian.

Raúl Domínguez (Barakaldo, 1984) Arte Ederretan lizentziaduna da UPV/EHU. Bere azken erakusketen artean, bereziki nabarmentzekoak ditu Re-Ilustrazioa (Angela Palacio-sekin batera) Oier Etxeberriak komisariatua, Cristina Enea Fundazioan (Donostia); First thought best, Peio Aguirre, Beatriz Herráez eta Itziar Okarizek komisariatua, ARTIUMen (Gasteiz); Gabinete Abstracto, Bilboko Rekalde Aretoa; eta Otzan (talde erakusketa) Madrilgo Elba Benítez galerian.




Ikuspegi orokorra



(ezker) Titulo gabe, 2016
Tinta, ikatza, grafitoa eta pintura plastikoa paper gainean, 100 x 70 cm.
(eskuin) *Samarkanda*, 2015
Grafito, errotulatzaila, tinta, spray eta ikatza paper gainean, 70 x 100 cm.




(ezker) Llorar , 2016
 Grafito eta pintura plastikoa paper gainean, 23 x 32 cm.
 (eskuin) *En el bosque*, 2014
 Grafito paper gainean, 16 x 22 cm.



(ezker) Sin Título, 2016
 Tinta eta errotulatzaila paper gainean, 25 x 35 cm.
 (eskuin) *El tesoro del faraón*, 2015
 Ezko, tinta Txina, grafito, grabatu tinta ureztatuta eta ikatza zaldi paper gainean, 25 x 35 cm.



Ikuspegi orokorra




Kardana y la tortuga se hacen amigas, 2016
Grafito, konte, ikatza, ezko, tinta, spray, akrilikoa eta grabatu tinta paper gainean, 140 x 189 cm.



Ikuspegi orokorra




Sin título, 2016
Tinta, bolígrafo, grafito, spray, errotulatzaila eta pintura akrilikoak paper gainean, 53 x 72,5 cm.



Sin título, 2016
Grafito eta bolígrafo paper gainea, 21 x 29,7 cm.



Sin título, 2016
Tinta, bolígrafo, errotulatzaila, grafito, konte eta ikatza grabatu paper gainea, 79 x 54 cm (dos piezas)



Sin título, 2016
Tinta, errotulatzaila, akriliko, grafito eta spray paper gainean, 370 x 235 cm.



Ikuspegi orokorra



Ikuspegi orokorra




Ikuspegi orokorra



Sin título, 2016
Grafito, errotulatzaila, tinta, akriliko eta ezko paper gainean, 31 x 26 cm.



Roble adolescente, 2015
Errotulatzaila, boligrafoa, ikatza eta konte marrazki paper gainean, 48 x 70 cm.



Ikuspegi orokorra



(ezker) *Calzoncillos grises, bragas blancas*, 2016
 Grafito, ezko eta akriliko paper gaietan, 25,5 x 33 cm.
 (eskuin) *Bragas blancas, calzoncillos grises*, 2016
 Grafito, ezko eta akriliko paper gaietan, 25,5 x 33 cm.



Atardecer repugnante, 2015
Tinta, spray eta ikatza paper gainean, 79 x 107 cm.



Ikuspegi orokorra



Ikuspegi orokorra



Sin título, 2016
Ikatza, tinta, grafito, errotulatzaila, grabatu tinta eta konte paper gainean, 420 x 250 cm (Hiru zati)